

HALONG badia





HALONG BADIA TONKINGO GOLKOAN DAGO, VIETNAMGO IPAR-MENDEBALDEAN. Edertasun paregabeko agertoki naturala da; ipuin magiko batetik ateratakoa dirudien toki lasai-lasaia.

Kostako 120 kilometroan zehar hedatzen da badia, eta, haren ur-azalean, hainbat tamainatako 2.000 uhartetxo ageri dira landaretzaz

estalita. Kondaira batek dioenez, herensuge sakratu batzuek sortu zuten Halong badia. Herensugeak zerutik etorri ziren, vietnamdarrak inbasio batetik babesteko. Baina ahotik ez zuten sua jaurtitzen, jade-zati erraldoiak baizik. Jade-zatiak uharte bihurtu ziren, eta, orduan, arerioak ezin izan zuen aurrera egin.



Geologoek bertsioa oso bestelakoa da. Zientzialarien arabera, badia sorrarazi zuen prozesua orain dela 240 milioi urte hasi zen, munduko txoko hau sakonera txikiko itsaso epel bat zenean. Itsaso

hartan bizi ziren koralen, moluskuen eta arrainen eskeletoak kaltzita-metaketak sortuz joan ziren, eta kaltzita da, hain zuzen, uhartetxoek egitura osatzen duen kareharriaren oinarria. Gero etorritako mugimendu tektonikoak metaketa horiek tolestean hasi ziren, ur-azalaren gainetik jasotzen eta apurtzen. Denborak aurrera egin ahala, itsasoak eta euriak lur-zati horiek moldatu zituzten, gaur egungo itxura hartu zuten arte. Kanpotik ikusita, uhartetxoak trinkoak dirudite; baina, barrutik, uraren higaduraren eraginez, guztiz zulatuta daude. ●



WIKIMEDIA



JEREMY COUTURE



CHRISTOPHE MENEBOEUF/©ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA



©ISTOCKPHOTO.COM/TBRADFORD